

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Telefoniako antenak ezbaian

Iñaki Merino Garcia (*Santutxuko Azurlekuko auzokide bat*)

Jakina da puri-purian dauden esku telefonoei estaldura emateko telefoniako enpresek beraien bezeroei zerbitzurik onena eskaini gura dietela. Horretarako gure hirietan, zelairik emankorrena izango balira bezala, antenak ereiten hasi dira. Gure teiatuak, saila oso emankorra izanik, erabilitako haziak diru mordoa du izena. Adineko jendez betetako atari bateko auzokide batzuei proposamen hori oso tentagarria zaie, zeren eta onartzen badute hileko kuota ez baitute ordaindu behar izango edota atari bateko gastuei aurre egiteko aukera paregabea baita.

Eraikin horien alboan bizi garenok, kasu gehienetan eskaintza horri ezetz esan diogunok, ez dugu, gure auzokideen erabakia onartu nahi eta protestatzeari ekin diogu, beren teiatuan telefoniako antena bat ipini nahi dutela jabetu garenean. Halako zerbait Azurleku auzoan gertatu da. Hori dela eta, protesta moduan edo, egu-nero 08:30etik 08:50era lapikoak, zartaginak edo direna direlako tresnak erabiliz egundoko zarata egiten dugu. auzoan, 17. zenbakian bizi direnek amore eman dezaten. Esan beharra ere badago atari berean bizi diren auzokideen arteko iskanbila ederra sortu dela zeren auzokideen baiez- tapena lortzeko auzokide batzuek triki- mailuak erabili ei baitzituzten zortzi sinadura lortzeko.

Osasun kalteei dagokienez, Bilboko Udaleko baten bati komunikabideetan entzun diot antena horiek potentzia gutxi-koak izateagatik ez direla kezkatzeko modukoak. Gustukoa izango nuke potentzia hori neurtzeko aparailuak noren esku dauden jakitea. Agian, telefoniako enpre- sen esku. Batek daki! Duela berrehun urte lurrin makina asmatu zenean oso zaila zen makina horrek botatzen zituen gasek ne- guko efektua ekarriko zutela iragartzea. Zer gertatuko ote da hamar urte pasatu eta gero?



galdeiozu...

EB-IUk alderdiaren Madrilgo agindu bat onartuko luke PP edo PSOEko lehendakari bat erraztearren?

Javier Agirre (Amurrio)

Ezker Batuari dagozkion erabaki politikoak beti hartzen ditu Euskadiko zuzendaritzak. Beraz, ez dugu inoiz onar- tzen inoren agindurik, nahiz eta gure erabakietan parte hartzeko aukera ematen diogun Ezker Batuko zuzendari- tza federalari. Hala ere, argi utzi dugu inolaz ere ez dugula onartuko Euskadin konfrontazio politiko eta soziala bul- tzatzen duen lehendakariarik. Bakea da gure helburua, eta horrek elkarriketa eta giza justizia eskatzen du, eta horrek guztiak ezkerreko gobernu bat behar dela esan nahi du.



JAVIER MADRAZO

EB-IUko lehendakariagaia



EAEko hauteskundeak

Maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoetako hautagaiekin jarraituz, apirilaren 9tik aurrera **Manuel Huertas** • PSE-EEko zerrendaburua izango dugu. Bidali zure galderak ordurako.

Euskara, publikotasuna eta bere finantziazioa

Juan Olalde Agirre (*Pasaia-Lezo Lizeoko gurasoa*)

EA, EAJ-PNV eta EH alderdien proposa- men batean oinarrituta, Pasaia-Lezo Lizeo- aren eta Udalaren arteko harremanak eta laguntzak arautuko dituen akordioa onartu zuen Pasaiaiko korporazioak pasa den urta- rrilaren bukaeran. Niretzat hain berri poz- garria zena, berriz, ez bide zen denon gogo- koa izan. Martxo hasieran, Imanol Zubiza- rretak, Gipuzkoako sare publikoko guraso- en federazioko presidente denak, *Diario Vasco*-ra igorritako eskutitzean bere eza- dostasuna azaldu zuen. Pasaia-Lezo Lizeoa ikastetxe pribatu kontzertatua dela, eta be- raz, Hezkuntza Sailaren diru-laguntza jada- nik jasotzen zuela argudiatuz, Pasaiaiko

Udalak eskaintzen ahal zuen laguntza lekuz kanpo zegoela esaten zuen; finantziazio bi- koitza omen zen hori, haren ustetan.

Euskara eta euskararen irakaskuntza inork berekotzat soilik hartu ezin dituen be- zala, uste dut inork ezin duela publikoaren kontzeptua berekotzat soilik hartu; are gu- txiago horretan oinarritzen bada Pasaia- Lezo Lizeoari emandako laguntzen zilegi- tasuna ukatzeko. Inork Imanol Zubizarre- taren eskutitza irakurriz gero, aipatu ikasto- laren finantziarioa oraingo ikastetxe publi- koak baino hobea dela pentsatzen ahal du. Imanol Zubizarretak, Gipuzkoako sare pu- blikoko gurasoen federazioko presidente den horretan, badaki hori ez dela egia.

Herri ekimenetik sortua, Pasaia-Lezo Li- zoea denon ondarea dugu. Ez da adminis- tratiboki ikastola publikoa, baina bere izaer- a soziala ikusita, pasaitar askok aukera-

tzen dugun ikastetxea dela ikusita eta bere ekimena publikoaren kontzeptu zabal ba- ten ildoan kokatzen duela ikusita, nik publi- kotzat jotzen dut. Zubizarretaren eskutitza- ren bukaeran «hezkuntza kontzertuetan ezartzen diren kontzeptu eta kopuruak oso argiak direla» aipatzen da; ez dut nik hori ukatuko, erantzun beharreko galdera, or- dea, beste bat dela uste dut, alegia aipatu kontzeptu eta kopuruak aski ote diren argi- tzea, eta, batez ere, zerk duen garrantzi handiago, zer izan nahi dugun garbi izateak ala administratiboki zer garen begiratzeak.

Bikoizketa Ave Marian!

Ines Zazu Artuch • IRUÑEA

Azken egunetan kezkatutik dabilen ama bat naiz. Nire hiru urteko alaba Arrotxapea- ko Ave Maria eskolako D ereduan ez baitu- te onartu, beste 13 haurri gertatu zaien mo- dura. Nik alaba eskola honetan matrikula- tzeko arrazoiak hauek izan dira, etxetik ger- tuen dagoen eskola da, D eredu eskain- tzen du eta publikoa da. Baina kanpoan geratu da eta orain auzotik kanpo bigarren aukera bat egin beharko dut: Sanduzelai, Txantrea edo San Francisco eskolak, bes- teak beste. Honek ondorioak ekarriko lizki- dake: garraioa, jantokia eta abar.

LOGSEk dioenez, gurasoek beren seme- alabak bizi diren lekutik ahalik eta gertuen, hautatutako eredu eta publiko batean es- kolatzeko eskubidea dute. Zergatik ken- tzen digute eskubide hori? Zergatik eskain- tzen digute auzoan D eredu behin matri- kula eginda lekurik ez dagoela esateko? Ave Maria eskolako D ereduak bost urte daramatza martxan, eta lau urtetan desdo- blatu egin dute, zergatik ez dute bigarren li- nea sendotzen, behingoz, urtez urte ozto- poak jarri beharrean? Arrotxapea gero eta handiagoa da, 25.000 biztanle inguru ditu eta hazkuntza hori oraindik ez da eten.

Zuzenketa:

Atzoko Egunkarian Bilboko Zubiarteko krosa ekainaren 21ean izango dela argitaratu genuen, baina ekainaren 24an izango da.

montxo

